

Durangaldeko Mapa Turistikoa

Durangaldeko Mapa Turistikoa. Durangaldeko Mapa Turistiko honek eskualdeko interesgune turistikoak nabarmentzen ditu. Mapa honek gainera, beste hainbat informazio jasotzen du, kasurako: Urkiolako Natur Parkearen informazio orokorra, mendi ibilbideak, pasealekuak; museoak eta interpretazio zentroak; turismo aktibo jarduerak; esperientzia desberdinak; bisita gidatuak eta [Elorrio](#) zein [Durangoko](#) Turismo Bulegoen zerbitzuak; baita Toki-Alai Interpretazio Zentroari buruzko informazioa, [Urkiola Natur Parkean](#)

.

Honetaz gain, mapa honek ikurren bitartez, eskualdeko ostatuak, jatetxeak eta zerbitzu turistikoak non kokatzen diren markatzen ditu. Bestalde, ezinbesteko bisita merezi duten baliabide turistikoak azpimarratzen ditu, baita gure mendietan diren behatoki onenak, eskualdeko ikuspegi ikusgarrienez gozatzeko.
